

5-Distribuzio kanalak eta komunikazio kanalak: **Distribuzio kanalak**

Kanal Fisikoa (Zuzena)

Badakigu pertsona guztiek ez dutela konfiantzarik Internet bidezko erosketetan; horregatik, **kanal fisikoa ezinbestekoa** da bezeroen konfiantza lortzeko.

- **Denda eta tailer integratua (Gasteiz – Zarautz kalea, Lakua auzoa):**
Gure denda fisikoak hainbat funtzio betetzen ditu:
 - **Salmenta fisikoa:** Internet bidez erostean konfiantzarik ez duten bezeroentzat, produktu nagusia eta bigarren mailako produktuak bertan eskuratzeko aukera.
 - **Zerbitzu teknikoa eta tailerra:** sistemaren instalazioa, ibilgailuaren mantentze-lanak, zirkuituen mantentzea eta aldizkako berrikuspenak.
 - **Showroom edo erakustaldia:** dendan bertan maketen bidez produktua nola funtzionatzen duen ikusi ahal izango dute bezeroek, beren ibilgailuan nola aplikatuko litzatekeen ulertzeko.

Kanal Birtuala:

Bezeroak webgunetik erosten duenean, produktua denda fisikora bidaltzen da, eta bertan jaso, muntatu edo aholkularitza pertsonalizatua jaso dezake.

Ibilgailu-flotak edo automobil-fabrikatzaileak direnean, salmenta-estrategia pertsonalizatuagoa erabiltzen da. Kasu hauetan, kanal fisikoan oinarritutako bilerak eta negoziazioak funtsezkoak dira, sistema ibilgailu bakoitzera egokitzeko eta segurtasun-maila altua bermatzeko.




<https://www.idealista.com/inmueble/106633157/>

komunikazio kanalak

Kanal digitala batez ere bezero indibidualei zuzenduta dago, erosketa azkarra, eroso eta segurua ahalbidetuz.

- **Webgunea:**

Gure salmenta-kanal nagusia da. Bertan, bezeroek produktuak ikusi, informazio zehatza irakurri, sistemaren funtzionamendua ezagutu eta erosketak egin ahal izango dituzte. Gainera, gure sistemak ibilgailu elektrikoetan suteak prebenitzeko duen garrantzia azaltzen da, konfiantza sortuz.



- **Sare Sozialak (Instagram eta TikTok):**

Komunikazio- eta erakartze-kanal gisa erabiltzen dira. Bideo labur eta deigarrien bidez produktua, bere funtzionamendua eta adibide errealak erakusten dira, erabiltzaileak webgunera bideratuz esteken bidez. Enpresak hazten denean, ordainpeko kanalak erabiliko dira, hala nola YouTube, Spotify edo telebista, iragarki laburren bidez publiko zabalago batera iristeko. **EGIN ZUEK INSTAGRAMEN KONTUA**

- **Mugikorra:**

Gure produktuak aplikazio mugikor bat dauka, eta hau ez da osagarri hutsa, baizik eta balio-proposamenaren oinarria.

Aplikazioa deskargatu ondoren, bezeroak matrikula edo txasis zenbakia sartzen du, eta honako datuak ikusi ahal izango ditu denbora errealean:

- Bateriaren tenperatura
- Gasen erregistroa
- Gas toxikoen detekzioa
- Arrisku-egoeren aurrean alerta automatikoak



- Horrela, bezeroak harreman etengabea eta automatizatua dauka sistemarekin, ibilgailua une oro seguru dagoela ziurtatuz.